

# ALTSASUKO DORREKO SEKRETUA

Bazen behin, gau ilun batean, bi emakume Altsasuko plazan paseatzen ari ziren. Herrian argia joan zen eta iluntasuna geratu zen, ekaitza hasi zen eta.

Tximista bat enparantzan erori zen. Orduan, itzal bat ikusi zuten. Bat batean drakula agertu zen eta bi emakumeak hegaka eramane zituen. Emakume batek galdetu zion drakulari:

- Nora goaz?

Eta drakulak erantzun zion:

- Nire dorrera goaz, nire afaria izando zarete!
- Ez zara zurearekin aterako!
- Zergatik ez? Ni oso indartsua naiz!
- Baina guk arma sekretua daukagu!

Dorrera iritsi eta kalabozora eramane zituen eta bertan itxi zituen. Han, txokoan, amona zahar bat zegoen. Emakume batek galdetu zion:

- Nor zara zu? Eta zer egiten duzu hemen?
- Ni dorreko zaindaria naiz, eta itxita nago, drakula nola hil dakit eta!

Emakumeek galdetu zioten:

- Nola? Nola? Drakula hil nahi dugu!
- Ilargi beteko gau batean, medailoi hau drakularen lepotik zintzilikatu eta ilargi izpi batek eman beharko dio!

Afaltzeko orduan, drakula iritsi zen. Emakume bat atearen atzean zegoen. Eta ZAS!!! Drakula harrapatu zuen. Beste emakumeak lepotik medailoia zintzilikatu zion. Momentu hartan, ilargiaren izpia leihotik sartu zen eta medailoian jo zuen.

Drakula hautsa bihurtu zen eta hiru emakumeak korrika joan ziren.

Eta handik aurrera, zoriontsu izan ziren.

## **Egileak:**

Susana, Begoña, Esther, Jordi, Roberto, Isabel, Hugo, Donald